


Gure domekak

Domekea zertarako da...? Itanera au ausnartu ete dozu serio eta benetan zeure barruan? Gaur, eleizara goazan artean domekaren zenuatuz itaunduko bagendu, erantzunik bage ez ete giñake aurkituko?

Alemaniak katolikuak ugarri debezala badakigu, baña ez da nazio katolikoa esaten deusaguenetakoa. Alan da guztiz be, an emon daben lege barri batek zutundu deuskuz gure uleak. Eta bera aletu nairik gatoz. Alemanian zapatu eta domekea ez dira biar egunak. Ango bizi-modu aparteko au begien aurrean arturik lege au zabaldu dabe angu agintariak: domeketan debekatuak gelditzen dirala deporte eta diberziñoak.

Lege onen esplikaziñoa aurre da: zapatua jai eguna denez, ez da biarrik izaten lan-



Gure eleizetako kanpai zaarrak goizero deitzen dabe mezatara

tzarako, lagunarteko artu-emonetarako, senidearteko goxotasuna biztu ta indartuteko ta Jaungoikoari zor ikona emoteko izan dedilla.

bersaziñoetan askotan era onetara mintzatzen gara: "Au mundua, zelan bizi direala uste dozu orretako jentiak...! Tzarto dabiltz...!" Ba-

ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

tokietan. Eta lege au egin daben burutapenak onexek izan dira: zapatua deporte ta diberziñoetarako erabilli da giela eta domekea famili-bizi-

Ederto pentsatua...! Zorionak Adenauer ta bere laguneri...! Leziño probetxugarria gaurko naziñoentzat...!

Gure pentsamentu eta kon-

VIII URTEA - N.º 77


MARTIA (3) 1961

DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1959

ña ez uste, Alemaniak beintzat zerikasi ederra emon deusku: domekea atsedena artzeko ta Jaungoikoarekiko obligaziñoak beteteko dala, alegia.

Nik ez dakit, baña gure domekak, domekak ez diralakoan nago askotan. Meza entzun bai, Meza entzuten dogu: baña domekea ezta "Jau-naren eguna" antziñako kristiñautzat lez. Gaurko domekak, batzuentzat gorputzari deskantsu emoteko besterik ez dira; beste batzuentzat deporte eguna; arentzat polito jantzita dibertidudeko eguna. arantzagokoentzat an-emendik alai-alai ibilteko eguna... Inor gitxik somaten dabe domekaren esanai sakon eta santua.

Domekaren zentzua galdu dogu. Eta onen sustraia barruagoan aurkitu bearko: epeldu egin gariala, erabat otzitu ez bagara...!



Bai dirala politik eta garbiak meza osteko gure jaiak!

Iñaki Albisu

KOMUNISTEN METODUAK

Esanda dago komunismoa atea edo Jaungoiko bakoa dala. Orregaitik ba eztauke ez moralik, ez antzekorik. Euren moralak. Estaduaren probetxua edo komenientzia da beti: Estadu komuniterentzat ona dana, dana da ona. Zer esanik be ez indarra, zigorra, bildur-jaurkerea, bonbak, erioztak eta beste olako gauzak ezin obeak direala. Baña edonun sartutzean ez dira orretara agertzen. Ori baño listoagoak badira, eta jakitea dabe bai ondo zelan ixildu eta eskutatu euren gogapen gaiztoak.

1.—**INFILTRAZIÑO.** Itxura eta iasako personatzat sartzen dira kargu baten usaintxoak aritzen daben tokietan. Olantxe gazteen kuadrilletan eta batez be eskoletan; eta baita, guzurra dirudi baño, komentuetan eurretan be. Sindikatua izaten dira batez be eurentzat desiatuenak.

2.—**ASOZIAZIÑO NEUTRALAK.** Zarritan fundaten dabez komunistak alako "asoziazio neutralak" edo dira diralakoak. Neutralak izenez, baño inoiz be ez izatez. Bertako kargu edo ofiziotxoak ondo gogor artuta egoten dira komunisten eskuetan. Asoziazio onek jakituria zabalteko eta ez dakit nik zenbat gauzatarako izaten eidira. Baña euren egizko finalidade bakarlagun barriak batzea izaten da Gauza guztiak ilustrazio eta jakituriaren izenean esaten dabez. Eta ilustrazio eta jakituri ori badakigu zalakoa izaten dan: Jaungoikorik eztagola, materia besterik eztagola, gizona monotik datorrela eta abar. Orixen da euren jakituri barria.

3.—**FRENTE ALKARTUAK.** Komunistak dana egiten dabe, itxuraz beintzat, naziño eta erriaren onerako: bera aunditzeko, bera indartutzeko. Gaur bertan zelan dabilte ba Kuban? Denpora asko eztala Kubako "Gaztedi Sozilisteak" aulako dei politik bota ebazan: "Gazteak, alkartu zaitetze". Katolikoeri eureri be eurekin alkartzeko eskatu izan deutsee: "Katoliko gazte orreek be, gure kontra egin barik, betoz ordu onean gugana; danok bat eginda, gaztedia eta gure Kuba maittea salba dagigun". Berba politik benetan tranpa eta pentsamentu txarrez beterik ez balegoz.

4.—**ETSAIAREN DIBISIÑO.** Esandakoaren antzekoa da metodu au. Ardura aundia izaten dabe beti dibisiño lan onetan. Ondo baño obeto dakie zelako errazoi aundia eukan Kristok: "Edozein erreinu zatituta badago, laster da beian", esan ebanean. Etsaiak banatu ezker laster egiten dabe euren egitekoa. Ejenplo ederrak daukaguz Europako naziño askotan eta Txinan. Elei-

zeagaz beragaz be bardin egiten dabe. Abade pobre eta aberatsaz asten dira lenengo; gero etxeko eta estranjeruatzaz. Askenean esaten da Erligiño Imperialismoaren lagunen kontua dala, erriaren benenoa eta opioa. Eta laster etortzen da abadeengandik urruntzea eta Erromagaz auste. Txinan gaur eurak egindako "obispo" apartekoak daukez. Benetan apartekoak!

5.—**ETSAIEN FAMIA ZAPALTZEA.** Naikoa zan Stalinen denporan, bat erriaren etsaia zala esatea, eta au edozer gauzagaitik esaten zan, urrengo egunean kunetan aurkitzeko. Olako etiketa asko manejetan dabez komunistak. Bein edo bein edozeñeri "reakzionarioa" esaten badeutse, kito, ez da besterik bear.

6.—**BESTE PARTIDUAK.** Aparteko maixuak dira beste partiduekin bat egiten eta azkenengo orduan talo osoagaz geratzen. Partidu onek eztabe zarritan olakorik uste izaten, baño larregitan pasa da gauzea ez ikusteko. Liberalak, eta nazionalismoak dira batez be eurak inketan diran mementuak. Ara or Afrika guztia sutan. Gustora dabilte oraintxe komunistok sekulo bada, Lumumbaren erioztat grazi gitxi egin deutse baño.

7.—**BESTEEN LANAK EURENAK BALIRALEZ ZABALDU.** Kuban gertatzen dana. Azpalditik egoan Eleizea deika "Reforma Agraria" bearbearrekoa zala eta ainbat ariñen egin bear zan



Jasako personatzat sartzen dira sindikatoetan

gauzea zala. Baña Kubako gaurko komunistak ezteutsue olakorik esango, eurena eta bakar-bakarrik eurena dala ze. Egia esateko, egiten diarduen "Reforma Agraria" ori eurena da bai bakarrik, Eleizeak inoiz ontzat emon ezin leiken reforma komunistea.

8.—JUSTIZIA. Berba au usetan inoiz lotsarik eztabe izaten. Naziorik geienen lagun izateko, justiziaren lagunik eta zintzoenak eta amorrotuenak legez agertzen dira. Baña justizi au, justizi komunistea beti. Ikustea baño eztago zelan dabilzen Suramerika guztian zarataka eta aupadaka askatasun eta libertade eske. Eurak dira justizi eske dabilzananak eta erri areen sentimentuak zitaldu eta goritu dabezenak. "Bera Inperialismoa, bera yankitarrak, bera inglesak". Eta bitartean aastu edo kontixu Rusiaren inperialismo zantarra eta nabarmena, Ungria eta beste olako gauza-txoak.

Ara emen komunismoaren metodo batzuk. Dana dira onak eurentzat Buruko miñik gogorrena Eleizeak emoten deutsee. Ortik euren ukusi-ezin zitaka Eleiza eta eleizgizontzat. "Fedea makaldu bear da —diño komunista batek— gure alegin

guztiak orretaraxe zuzendu bear doguz, ia egunen batean iko eldua lez jausten bada fede zikin ori".

Eta or tabernetan eleizgizonen kontra berbetan dabilzananak, zer uste dozu direla? Komunistak? Ez komunistak bear bada, jakinez beintzat, baña ortixik asten dira komunistak. Zarritan uste izaten da norberaren buruagaz pentsatzen dala, baño askoren berbak ez tira beste aldean baten batutako egi itxurazko astakeri batzuk besterik. Amaika bidar pentsatu dot olako gauzak entzutean: "Baiña gizona, ete dakie gixajo orreek, edo susmatzen ete dabe pentsamentu orreek komunistaren batek zabaldua egon leikezenik? Nundik artu ete dabez gauza orreek? Nun edo nun entzun dabez euren buruak emonak ez tira ta". Egia esan, euren-eurenak balira lez botatzen dabez, orduantxe laban erreneko ogia lez. Epelak diralakoan.

Uste dotanez errexegi atxekitzen da Eleizea eta eliz-gizona. Gitxik pentsatzen dabe bear bada euren alde erresatu bear dabenik, baña atxekiak atera, ori danak. Benetako kristiñauak bagiña elixaku olakorik pasauko. Eleizea geure ama dogu eta amari dagokion errespetu eta maitasunez begiratu bear geunskio.

Antonio Landeta

Rusia'ko eleizea Konzilioaren aurka

Argi ta garbi dagon gauza da gaur Rusia-ko eleizak ango gobernuari laguntzen deusola. Eta argi ta garbi dagon gauza beste onako au be: alegiñik danak egiten dauzala gaur kristau-errian nabaritzen dan Konzilio-arazo au itotzearen; eta al duan neurrian, egiñalak egingo dituala Eleiz-katolikoak laster ospatuko dauan eliz-batzar-nausiak lur jo daian.

Ontarako, Rusiako eleiz ortodoxoaren buruzagiak, Alexis Patriarkeak, Sorkalde Erdiko beste eleiz ortodoxoak bereganatutzearen andik ikustaldi bat egin ondoren, Komisio bat sortu dau. Eta Komisio onen buruzagi lez Leningrado'ko arzobispo Pritim jauna izendatu dau.

Komisio onek lenengo egin dauan gauza, "Bakea ta Eleiz ortodoxoa" daroan idazburu onexegaz, erabaki bat idaztea izan da. Eta idazkai au, oraindik orain Praga'n izan dan Bakebillako IITgarren kristau Konferentzira eroan eben.

Idazkai au komunismoaren propaganda bat baiño ezta, ez bai dau auxe besterik esaten: Komunismoak errien gizakerari-buru

erakusten dituan egiak. Eta idazkai onen joburua auxe dala esan daiteke: Eleiz-katolikoak beste eleiz ortodoxoen artean daukon bitartekotasuna ito.

Onela diño leku baten: "Rusiako eleiz ortodoxoa gerrate otz orren aurka dago eta arma nuklearrak eskutau ditezela eskatuten dau". Eta beeratxoago: "Rusia'ko eleiz ortodoxoak gure erriko egintariak bakezko bizitzaren alde, nukleozko pruebak eskutau ditezzen eta desarmearen alde egiten dabezan al-egiñak ontzat artzen dauz eta bedekatuten.

Baiña idazkai onek ez dakarz komunismoaren egiak bakarrik; badauko bere ziria be. URSS Satanasen erreñua dala uste daben kristauen aurka izugarriak jaurtitzen dauz...

Ez dot uste idazkai onek inor ikaratu dauanik, danok dakigun gauza bat besterik ez bai dakar: Rusia'ko eleiza nagusia gaur komunismoaren seme leial bat baiño ez dala.

Agustin Blain

Dakar aldetik

Atzo urten genduan Dakar-retik, arratsaldeko lauretan. Etzerantz gatoz. Bermeorantz. Jaungoikoagaz, martiaren lauan-edo elduko gara Canarias-ko Las Palmas-era. Bost eguneko bidea. Bitartean, kartatxu bat idatziko deusuet, Dakar-reko azkenengo barriak jakin daizuezan. Eguraldi ona daukagu: itxasoan kalma zuria, zeruan eguzki epela. Popa gaineko batelean jezarrita nago. Erdi ostuta. Emen ez nau inok molesetan.

ARRAINTZALEEN APEZPIKOA

Goiz aretan —Dakar-reko azkenengo goiza— artekadu genbiltzan Bermeotarrak, arratsalderako gauza guztiak listo eukiteko. Guk, frailleok, vezperan ekarri genduzan erritik gure zer guztiak, eta sartu ginen eurakaz Pío XII-n, gure barku barrian. Zubian patroiazagaz verbetan nengoala, moillara saltetako esan eusten, obispo jaun bat neuri deiez egoala-ta. Jantzi neban, arravaladan neure fraille habitua, afeitatu nintzan andanan makiña elektrikoaz, joan nintzan ariñeketan legorrera, ikusi neban obispo jauna eta mun egin neutsan erastunean.

Baiona-ko obisnoa zan. Monseñore Paul Gouyon. Euskaldun frantsesen apezpikoa. Aolan deituten deusoe eurak. Dakar-rera etorri zan, Donibane Lohitzune-ko (San Juan de Luz-ko) arraintzaleeri visitatxu bat egitera. Gizon laua bera, frankoa, etiketa bakoa, errizalea. Geure gizoneri-bere verba egin eutsen. Geure barkuak-bere visitatu zituan. Bera ez da euskalduna. Ez daki euskeraz. Erderaz polito egiten dau baiña. Asko maite ditu euskaldun guztiak; eta min aritzen dau, euskeraz ez dakian gutariko arraintzaleren bat topetan dauanean. Bere alboan egon nintzan dempora guztian. Preguntatxu batzuk egin eustazan euskaldunen kristiñau bizimeduaren gainean; eta asko postu zan. Espainiako euskaldun arraintzaleak Frantziko anaiakaz ondo komponzen zireala erantzun neutsanean.

EUSKALDUN FRANTSESAK

Donibane Lohitzune-ko 24 barku dabiltz

aurten Dakar-ren arraintzan. Irureun ta berrogei gizon gitxi gorabeera. Artu-eman aundia daukogu Bermeotarrak eurakaz. Portuan gogozanean, asko verba egiten dogu alkarregaz, eta ordu ederrak pasetan doguz, itxasoko eta Euskalerriko gauzen gainean izketan. Itxasoan barriz, sarritan ematen deusagu alkarrieri karnadea, eta radiotik komunikatu arraintzako gorabeera; Batzutan —arraiña dala ta ez dala— okasiñotxuak-bere eukiten doguz alkarren artean; baiña ori gorabeera, ederto komponzen gara; biotzean ondo sartuta daukogu danok gure euskalduntasuna.

Frai Alberto-k eta biok tratu aundia egin dogu aspaldion eurakaz. Askotan joan gara jaten euren barkuetara, eta frai Alberto-k sarritan kompondu deutsez radio ta goniok. Polito alkar ulertzen izan dogu euskeraz. Bizkaiko verba asko erabilten ditue, eta ondo entenietan deuskue esan gura dogun guztia, batez-bere astirotxu verba egin ezkerero. Or, Euskalerrian, aspalditik dabilta jakitunak euskerearen batasunaren bila. Datozala Dakar-rera, eta ikusi daiela zelan egin dogun zorioneko batasun ori bertoko euskaldun arraintzaleak, bizkaitarrak, giputzak eta lapurditarrak. Nik neuk, Euskalerriko mapan zirkunferentzia txikitxu bat egingo neuke; barruan sartuko neuke Donibane Lohitzune, Sara, Elizondo, Bera, Oiarzun, Erreterria ta Pasaia; eta bertan biltatuko neuke, beste inora joan barik, euskerearen batasuna.

Euskaldun frantsesak, gure aldean ondo dagoz gauza askotan. Euren barkuak gureak baiño obeak dira, bizkorragoak, modernuagoak, garbiagoak. Eurak gu baiño obeto bizi dira, obeto jantzi, obeto jan, geurego irabazi, ta geiago gastatu-bere bai. Zegaitik ori? Zegaitik diferentzia orren aundia, eurak eta guk arrain kantidade berri atrapetan badogu, edo bearbada guk eurak baiño geiago? Nik bein, errazoi bi bakarrik esango deusuedaz: Euskaldun frantsesak prezio obean saltzen dabe euren arraiña eta gobernuak guri baiño askoz geiago lagunduten deutse. Zorionekoak eurak! Baiña guk, euskaldun espainolak, aurrerantzean Dakar aldera etorri gura badogu alegiña egin bear dogu ortik eta emendik, zelan edo alon, bakarrik edo ez bakarrik, barku obeak egiteko, modernuagoak, garbiagoak, gozagoak, arrain geiago otrapetako, diru geiago

irabazteko, itxasoan obeto biziteko, obeto jateko, obeto deskantsetako, obeto egoteko. Aure da gure obligaziñoa. Obligaziño gogorra. Batez-bere armadoreentzat.


PENAK ETA POZALDIAK

Beti izaten da gauza gozoa etxera joatea. Kasik lau illabete egin doguz Dakar aldean, eta gero ta gero be eldu jaku Bermeo-ra bihurtuteko ordua. Arratsaldeko ordu biak inguruan asi dira barku guztiak, alkarren atzetik, portutik urtetan. Pio XII geratu da atzerengo. Gu, fraille biok, bertan gatoz. Lagundu egin bear deusagu barku orreri, Monrovia-ko portuan makiñista barik lotu da-ta. Gaiñera, gizon bat txartotxu dago barruan ziriziriagaz. Frai Alberto-k artu dau bere pentzura makiñea, eta berak zainduko dau gaixoa. Trankil goaz. Urten dogu portutik. Egin deusagu agur Dakar-reri datorren urterarte. Eta momentu orretan, gitien uste dogunean, guztiz txarto imiñi jaku gaixoa. Ez dau verbarik egiten. Konortea galdu dau. Jausi egin da ogetik. Min artu dau bekokian. Ia ia pulsturik-bere ez dauka. A zan gure estualdia, a gure larritasuna! Ezin dogu eroan gaixoa Canarias-erarte. Il egingo jaku bidean. Barriri joan bear dogu Dakar-rera. Sartu giñean atzera portura. Joan nintzan ariñak arin mediku billa. Etorri zan korrian. Ikusi eban gaixoa,

eta minutu bapere galdu barik ambulantzia baten eroan eban hospitalera. Frai Alberto ta biok joan giñean gaixoagaz. Antxe itxi genduan, bertako medikuen eskuetan. Leku onean itxi genduan. Monja espaiñolak dagoz bertan. San Frantziskoren Irugarren Ordenako Monja Zuriak. Gaixoa ondo jago-teko esan neutsen. Seguru nago euren neba bate lez zainduko dabena. Eta eureri azkenengo errekomendaziñoak emonda gero, barkura biurtu gintzazan eta urten genduan Bermeo-rantz.

Eguraldi ona dakagu. Ezin ohea. Greziako arraintzale barku bat topatu dogu bidean. Arçñoa emon deutsegu, eta eurok guri arrastako arraiña zenbatgura: brekak, kukutzak, barbañak. Canarias-era zapatu goizaldean elduko gareala diñoskue. Alan izan da. Goizeko ordu bietan, martiaren 4-an, sartu da gure barkua Las Palmas-eko portuan. Bertotik bialtzen deusuet nire agurrik beroena.

Aita Imanol Berriatua



Gaztaroa dala ta ez dala

Orra or gure neskatoa. Orra or gure mutikoa.

Oraidiño dempora asko ez dala, arpegi xamur, irribarre gozoz eta fiñ-fiñ agertuten zan danan aurrean. Gaur oster a ez da lengoa. Neskatoari belarritoko elengantiak eta ezpanak gorrituteko gogoa etorri yako. Mutikoari bizarrak kili-kili egin deutso okeztean eta amodioak, biotzean. Gizajoa! Go-rantz doa gure gaztea! Bere arpegian, begi biak ito egin dira, ta lengo begirakume polita zorrostu, metu egin da. Problema asko erne dira bere barruan: adizkidetasun, amodio, azkatasun-gogo, ideal eta ametsak...

mundu barri bat sortu da berantzat. Mundu barria! Baiña... ezbear, atsekabez, amets zoro ta inkompreziñoz gañezka dagon mundua!

Aurtzaroaren azken orduak; gaztetasunaren lelengo orduak. Biak nastau, ta orra or gaztaroa. Benetako atsegiñik ezin dau eskeiñi mundu zabal onek. Gaztaro demporan, izaki edo gizon dan guztia aldatuten da; kampotik eta barrutik. Kampotik: neskatoak galtzerdi luzeak eta "gona estuak" ipinten dauz. Mutikoak, praka txikien ordez luzeak. Len amak gorbatea ipinteko aginduten eutsonean, murmurka ibiltzen

zan; oraiñ ez dauka amak agindu bearrik; ispilluaren aurrera joan, eta, an dabil atzemarra gora eta atzemarra bera...

Barrutik? Barrutik be bai; barruko aldatzea edo kambioa kampakoa baiño aundiagoa da. Gure mutikoa ez da lengoa. Ez. Len, agindu ta ixil-ixilik egiten eban aginduten yakona. Oraiñ!.. Demontresa!.. Oraiñ iru bider agindu ta laugarrenean, "zeuk egin!", erantzungo deutsu. Len baketsu ta patxadakoa zan; oraiñ, barriz, odol-bizi edo nerbiozoa da. Len gustokoa zan beragaz berbetan egotea; etxekorra zan; oraiñ etxearen ormak txikiak eta estuak dira gure gaztearentzako; egunaren ordurik geienak kampoan egiten dauz.

Gaztaroa! Neska-mutillak eurak be egundo ulertu ez daben mundua!

Alderdi bik beraganatu gura dabe gaztaroa! Bata len pasauriko aurtzaroa da; bestea, bizitzaren egiari aurrez-aurre egiteko yatorkon gogoia. Egitasun edo errealidade ori, kontzientzi zuzenagaz zirikatuten edo aztertuten asitea derriorekoa da; bestela bizitza guztian "ume" izateko arriskoan gedituko litzake.

Gizarte asko eta guraso asko dira gaztaroaren mundutxu au ulertu ez dabenak. Gizarte urtedun eta guraso askok ez dabe iñoiz euren seme-alaben gaztaroa ezagutu; lastimea! Guraso askok, danak ez, euren seme-alabeeri ez deutse egundo itxi gizarte urtedun edo soziedadean sartuten; zer dala-ta? Seme-alabeeri goitik bera begitu gura deuselako beti. Beti aginduteko prest, euren problematxueri sekula jaramonik egin babe. Auxe da askotan semeen biotzetan gurasoenganako gorrotoa biztuten daben sua. Noren errua?.. Askotan beintzat, gurasoen aundikeritasunarena.

GAZTAROA, AURTZAROA TA GIZAROA LOTUTEN DABEN ZUBIA DOZU

Bai, gaztaroa, aurtzaroaren eta gizaroaren edo gizontasunaren erdian ipiñiriko zubia da. Gaztaroa dozu, irakurle, ardurarik aundienagaz zaindu bear dan sasoiá, gerorako bear diran "gauzak" biotzean ezitxuteko arorik onena. Gaztaroan artu bear da noberearen bizi guztiaren bide zuzena.

Baiña, zoritxarrez, guraso asko, (danak ez!), dira oraindiño euren seme-alaben gaz-

taroa zer dan eztakienak; baso pistiak legez, eziten dabez semé-alabak, maitasun barik, arnasa artuteko astirik barik, ta kur amorrotoak legez. Maitasun gabe ez leiteke seme-alabarik ez asi ez ezi! Maitasuna, maitasuna, maitasuna!..

EZAGUTUBAKO MUNDUA!

Gurasoak, gauz guztien ganetik, alegintza zaitze zeuen seme-alabean gaztaroa ezagututen! Orixe da Jaungoikoak emon deustuen bearrik aundiena! Ez pentseu zure seme edo alabeagaz zeuk gura dozunik egitekin, ez! Jaungoikoagaitik asi ta ez seme-alabak! Baiña ez makillaz bakarrik maitasunagaz baiño. Saiatu seme-alabean mundutxua ulertuten. Nork daki "Teddy boy, Tepisti, Bluses-noires" eta oneen antzeko gaztedi madarikatuaren iturria zelan dan?..

Gurasoak, zaindu ta ezagutu zeuen seme-alabean gaztaroa!..

Idoyagatar Xabier anak



KUBAKO GORABERAK

Beste diskurso itzal bi bota deuskuez, eta biak aste baten barruan, Kastro anai bereok. Ogei mila ikasleren aurrean aolako gauza dotoreak esan dauz Raul Kastrok: "Gobernuaren patzientzia amautuaz doa. Eliz gizon eta kristiñau buru gofor askoren ardurabakotasunak agortu dauz gure patzientziaren askenengo iturriak".

Oraindiño egun gitxi dirala abade bat atrapau eiben polborin bateri sua emoten. Baiña lastime, Raul Kastrek ezin esan noiz zan eta nor zan abade zantar a. Ezta nün egoan egun areetan. Egia izan balitz laster aterako ebeñ bai periodikoetara bere erretratua. Zer besterik nai leukie eurek olako erretrato bat baño besterik.

Raul Kastrok beraunek esau eban "abade eta fraille guztiak sotanadun kriminal batzuk ze besterik etzirala be". Geratu barik dabiltz anai biak, bata baño bestea heroago eta zitalago, bai radioz, bai periodikoz eta bai telebisiño eta berballidietan, elciz gizonak imperialista ziztrin eta diruzale batzuk besterik ezzirala deadarka.

Azpalditxotik diardu Kubako gobernuak bertako obispo eta kardenalaren aurka. Ikusten zan etorrena. Komunisten metuduak dira: Made in U.R.S.S. Arteaga kardenala eta obispo inportanteenak dira batez be euren kaluni guztien pagatzaileak.

Bero dabiltz ba Kuba aldean. Zer pasako dan? Ez daigun nste izan beintzat dana doala txarto Kuban be. Badago amaika elemento on eta fin bertako gaztediaren filetan be. Esan neuntsuen zelan esan eban Aita Xabier Arzuagak esperantza guztiak ipini geinkeezala, eta bildurrik barik, Kubako gaztedi onetan. Eta orain aparte esan gura deusuet beste gauza au: Aita Arzuaga Kubara joan dala barrero. Zertara? Jaungoikoak alan nai badau, besterik ezpada, bere odola emotera.

Bost eguneko permisua emon deutso Kastro bizartsuak. Oraindiño akordau egiten da antza Aita Xabierretzaz eta batez be bere baliozaz. Beintzat itxi deutso arantz joaten, denpora gitxirako bada be. Ezin egin izango dau gauza aundirik bost egunean, baña bai bertako gazteekin alkar-ikuste bat euki eta aurrerantzean zelan jokatu bear daben esateko beste. Badakizue zelan Aita Xabier Arzuaga Kubako Konsiliario Nazionala dan. Txalogarria ba Aita Arzuagaren balorea eta ausardi-



Aita Xabier Arzuaga

tasuna. Jaunak ondo zuzendi dedilla.

Danen ustez, Kubaren salbazioa bertako gaztedian dago. Eleiz gizonak danak dira españatarrak, eta an españatarra eta antirrebuzionario, lapurra, traidorea eta falanjistea dana da bardin gaur egunean. Orregaitik bertakoekin egin bear da ba egitekoa. Eta itxaropena euki bear dogu gazte onetan. Eztagoz lo ez. "La Quinceña" errebisteak, katoliko errebista bakarra gaur Kuban, iru milla ejenplartik ogeitamar millara pasau da. Fidel Kastrok berak be bein baño geiagotan ikusi dau gaztedi onen indarra eta balioa. Orregaitik esan deutse bere alde paretako ainbat bidar. Baña badakie zer egiten daben ondo. Euretatik askok euren odolagaz pagau bear ko dabe euren leialtasuna. Eta au ondo dakie eurek. Baña diñoenez: "Kristogaz edonora".

Poztutzekoa da onelako gaztedia ikustea. Baña badaukagu guk be obligaziño bat. Eta obligaziño au Aita Arzuagak ondo agertu euskun: otoitz egiteko obligaziñoa. Otoitza indarra da.

Egin daigun bada otoitz Kubako gazteen alde.

Antonio Zubizarreta



GOOOOOL!!!!

Jesus, Maria ta Jose! Olakorik..! Naiz edozein errebista edo periodikotan orri asko irakurri futbolatzaz, naiz ta "goles" tripako miña euki, nik be zueri zeozer esateko gogoa daukot, futbol kuestiñoetan daukazuen autoridadea iñori kentzeko asmo barik.

Ori ondo dago, futbola gauza ona da, baiña... nundik iatorko futbolari ainbesteko inportantzi edo garrantzia? Zergaitik emoten deutse gure periodikoek orrenbeste jira-bira eta orri-alde futbol arloari? Nork ulertu leike asteko domeka baten ostikoka (eta zarritan ukubilka, eta...) dabilten gizonak ainbeste milloi irabaztea, eta, bitartean, astero-astero berrogeitamar ordutik gora biarrecan igaroten dabezenak gōsez ilten egotea? Antza "gol" bakotxak izerdi xerionak baña geiago balio dau? Zorakeri orreek konprenditzen zoratu egiten naz. Guzurrek besterik ezta emengo bizitza! Lapurkeria...! Eta oraindiño gure periodikoek lapurkeri ori goratzen eta abestzen... Eztakit nun daukagun bu rua.

Dana dala, futbola "eguneroko ogia" da Futbolisten izenak edozeiñek dakiz, urte biko ume peleeak eta larogeiko amoina atsoak. Ziñeko "izarrak" eztauke zer eginik Di Stefano, Kubala ta Puskasen ondoan. Baiña futbolak, jente guztia era orretara ekarteko, zeozer euki bear dau, bai. Eze-rezko gauza bategaitik eztoğu gizonok arnasarik artzen edo pausorik emoten. Eztakit nik futbol partidu baten ikusten eta entzuten diran teatroak edo biraoak ondo ikusita edo txarto eginda bada-ğoz; eztakit ez, baiña nik dakidana da futbol moskorrari zioa edo zergaitia aurkitu bear iakola ta

ori gure arazoa dala, bakotxarena ta gizarteare agintari direanena. Gaur ezin da iñor futbolar kasu egin barik geratu.

Futbol zorakeria ezta Españako gaixoa baskerrik. Italian, Europa osoan eta Ego-Amerikan bez bez be bardin gertatzen da. Zergaitik baiña...! Zuena da erantzuna. Gizonak Politikagaz kantsetuta dagozalako, edo partidu politikoekez beteta dagozalako, edo barruan besterik eztaukagunbeto. Auxe da egia: futbola, futbola...! Bitartean dometako Meza Santua... or konpon! Futbola izan ezik gaur eztago ainbeste jente batutzebe dan gauzarik, ordu bat, bi, eta arratsalde guztia be bardin. Eta Mesatarako ordu erdi ezin aurkitu ezelanik be. Ain gara kristiñau onak gaurkuak.

Zeozer esan gura dau teatro saloiak zine tokitan biurtzeak. Zeozer esan gura dau Españian ireki kurtzen dugun guztia abitante bakotxari emontzeak. Zeozer esan gura dau Barzelonako "Famili Santuaren" eleiza be rreun urtean ezin amaitu izateak, eta bertako "Non Camp", edo futbolerako kanpo barria urte brian jasoteak. Bai, zeozer: futbole kanpo bat batentzat eleiza baño bearrezkoagoa izateak... Españian gitxi irakurtzen dala.. bai. Besterik eztoğu uai ta!

Gizona ezin da Jaungoiko barik bizi. Jaungoikoa da gizonareu asiera eta azkena. Baña gaurko gizonaren Jaungoikoa futbola balitz, orduantxe bere preniduko gaunke bere zorakeria eta indar-iturrria. Kanpo futbolak bete-betean eta eleiza utzik... negargarria, baña egia..!

Pedro Mari San Pedro.